

TWITTER

TWITTER

Txosten honetan aurkezten dira 2021-2022 ikasturtean egindako seigarren inkestan jasotako emaitzak. Informazioa, Ukraina eta Twitterri buruzko gaiak landu dira nagusiki inkestan eta txosten honetan Twitterrekin erlazionatutako emaitzak bildu dira.

1. OHAR METODOLOGIKOAK

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak. Galdetegiak encuestafacil.com plataformaren bitartez kudeatzen dira eta hortik jasotako datu baseak Aztiker Soziologia Ikerketa Unitateak ustiatzen ditu.


Txosten honetan aurkituko dituzu 2022ko apirilaren 4tik 10era bitartean martxan izandako inkestaren emaitzak. Panelkideek Twitter erabiltzeko dituzten ohitura eta joerei buruzko datuak bildu dira: kontu mota, erabiltzeko maiztasuna, kontsumitzeko zein sortzeko gai eta hizkuntza nagusiak, eta sare sozialaren baliabideak erabiltzeko modua besteak beste. 1.176 erantzun hartu dira kontuan, baliozko panelista guztienak (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).



2. TWITTER

Sare sozial honen erabilera zenbatekoa den galdetuta, inkestaturen artean, % 63,1ek Twitterreko kontu bat daukala adierazi du. Nahiko kopuru antzekotan dauzkate kontu publikoak eta pribatuak, % 29,6k publikoak eta % 28,5ek pribatuak. % 36,9k dio ez duela erabiltzen sare sozial hau, 433 pertsonak (hauei ez zaizkie hurrengo galderak egin).


1. Irudia – Erabiltzen duzu Twitter, zure kontua daukazu ala ez? Eta zelako kontua da, publikoa ala pribatua da?



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitterren erabiltzaile diren pertsonen artean, erdiak baino gehiagok gutxienez egunero erabiltzen du sare sozial hau, % 29,8k egunero eta % 25,7k egunean behin baino gehiagotan. Oso gutxi dira inoiz erabiltzen ez dutenak, % 3 edo 22 kasu.


2. Irudia – Zenbatero erabiltzen duzu Twitter?



Iturria: Ikusiker Applika +

Sare sozial honen inguruan egin nahiko luketen erabileraz galdetuta, % 71,1ek gaur egungo erabilerarekin konforme dagoela erantzuten du, “ez gehiago ezta gutxiago ere” adierazita. Bestetik, nahiko pareko banatzen dira falta diren beste inkestatuak gehiago erabiliko luketenen eta gutxiago erabiliko luketenen artean, % 12,9 baitira lehenengoak eta % 16,0 bigarrenak.


3. Irudia – Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke Twitterren?



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitterrera sartzeko erabiltzen den gailu nagusia telefono mugikorra (smartphone-a) da, % 94,5ek hala adierazten baitu. Bigarren lekuan, ordenagailu eramangarria dago, inkestatuen % 3,2ren kasuan. Hortik aurrerako aukera guztiak (mahaiko ordenagailua, tableta, Smart TV-a, bideo-kontsola edo bestelakoak) % 1etik behera gelditzen dira.


4. Irudia – Zein gailu erabiltzen duzu gehien Twitterrera sartzeko?



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitterren irakurri ala ikusten diren edukien artean, gaztelania da hizkuntza nagusia, inkesta erantzun dutenen % 79.0k hala baitio. Bigarren lekuan, ingelesa eta euskara nahiko pareko gelditzen dira: ingelesa da hizkuntza nagusia inkestatuen % 10,6rentzat eta euskara % 8,8rentzat.

5. Irudia – Twitterren irakurri ala ikusten dituzun edukietan zein da hizkuntza nagusia?



Iturria: Ikusiker Applika +


Sare sozialean jarraitzen dituzten kontu edo profilei dagokionean, gustukoen dutena @IbaiLlanos da aipatutako beste profilekin konparatuz. Honen ondotik eta askoz aipamen gutxiagorekin @InesRisotas, @Telmometro eta @auronplay moduko komunikatzaile edo influencerrak aukeratu dituzte. Aipatuenen artean daude baita ere eta batez ere futbol taldeen profilak, beste influencer eta komunikatzaile batzuk eta baita hedabide batzuk ere.



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitterren gehien jarraitzen den gai edo kategoria nagusia “komedia, memeak eta parodiak” deritzona da (% 26,8k aukeratu du). Bigarren lekuan “albisteak eta politika” aukera dator, % 16,5k hautatuta, eta hirugarren lekuan “gizarteko gaiak eta pertsonak (% 12,5ek). “Futbola” zehazki eta “kirol mundua” orokorrean nahiko pareko gelditzen dira % 7aren bueltan, eta ondoren “zinea eta serieak”, “musika” eta “famatuak, celebrity-ak...” % 6 inguru gelditzen dira.


6. Irudia – Zein da Twitterren gehien jarraitzen duzun gaia edo kategoria?



Iturria: Ikusiker Applika +

Segidan, ekintza batzuk Twitterren zein maiztasunekin egiten diren galdetu da. Maiztasun handienez egiten diren bi jarduera nagusiak (inkestaturen hamarretik sei inguruk egunero edo egunean behin baino gehiagotan egiten dituzte) “Twitter erabili orokorrean” eta “besteen txioak irakurri” dira. Ondoren, “besteen txioetan bihotzari eman” (% 39,6k gutxienez egunero egiten du) eta “besteen txioak birtxiokatu (retweet)” (% 19,9k gutxienez egunero egiten du) datoz; hala ere, bi horien kasuan oso gutxitan edo inoiz egin ez dutenen kopurua esanguratsua da, laurdenetik gora baitira. Hortik aurrerako ekintza guztien kasuan, ohikoena inoiz egin ez izana edo oso gutxitan egin izana da, hamarretik sei baino gehiagok hala adierazten baitute (besteen txioei erantzuna eman, birtxiokatu, txio bat idatzi, txioak irudi edo bideoekin igo, bozketa bat sortu edota fleet-ak igo).


7. Irudia – Ekintza bakoitza zein maiztasunekin egiten den Twitterren.



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitterren sortzen dituzten edukien artean, hizkuntza bakoitzak zer-nolako pisua duen ere jaso da. Galdera erantzun duten 711 pertsonetatik erdia inguruk (353 kasuk) adierazi dute ez dutela edukirik sortzen Twitterren. Edukiak sortzen dituzten 358 pertsonen artean, % 40,5ek adierazi du beti gaztelaniaz sortzen dituela, eta % 28,2k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago sortzen duela; hau da, gaztelaniaren erabilera dute nagusi ia hamarretik zazpik. Euskaraz bakarrik edo gaztelaniaz baino gehiago sortzen dutenak, aldiz, % 18,2 dira. % 9,8k adierazten du nahiko pareko erabiltzen dituela bi hizkuntzak, eta % 3,4k beste hizkuntza batean sortzen ditu eduki gehienak.


8. Irudia – Hizkuntza aldetik, zenbateko pisua dute euskarak eta gaztelania Twitterren zuk zeuk sortzen dituzun edukietan?



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitterren balorazio orokor bat egiteko eskatuta, batez beste, 7,2koa izan da 0 eta 10 bitarteko eskala batean.

9. Irudia – Twitterri buruzko balorazio orokorra eman beharko bazenu, nolako nota jarriko zenioke?



Iturria: Ikusiker Applika +